



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2020KO UZTAILAREN 8KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO DOKTORE IKERTZAILE IRAUNKORRAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearen 2020ko apirilaren 14ko Erabakiaren bidez deia egin zen unibertsitateko Doktore Ikertzaile Iraunkorraren plaza betetzeko (2020ko maiatzaren 26ko EHAA), eta amaituta onartutako eta kanporatutako behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea (deialdiko 4.1. oinarrian zehaztutakoa), errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda. Zerrenda Leioako Errektoregoko Lehiaketen Ataleko iragarki oholean eta Interneteko helbide honetan ere ikusi daiteke: (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitara ematea erabaki honen eranskin moduan agertzen den lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda. Bertan jasota ageriko da lehiakidea kanporatua izateko arrazoia.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok UPV/EHUko Errektoreari, erabakia argitaratu eta hilabeteko epearen barruan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa ez bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2020ko uztailaren 8a.

Eskumenak eskuordetuta (Ebazpena, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, Errektorearena, 2017/02/03 EHAA).

INMACULADA

GUERRICAGOITIA MARINA

Firmado digitalmente por INMACULADA GUERRICAGOITIA MARINA

Fecha: 2020.07.08 13:57:17 +02'00'

Izpta.: Inmaculada Guericagoitia Marina
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:

Lanpostuaren zk.: 1. Kodea: IDPTCL1 – D00026-4. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Farmakologia. Saila: Farmakologia. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: Osoa. Ikertzaile profila: "Autismoaren Espektroko Nahastearen (AEN) Patofisiologia eta Neurofarmakologia".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: OLGA PEÑAGARIKANO AHEDO
NAN: ***5784**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez